

Literatura tailerrak aurkeztu dira Hondarribian

Rododera, Flem, Lessing eta Urretabizkaiaren obrak landuko dira abendura arte

Hondarribia. Udal Liburutegiak aurten egingo dituen literatura tailerren aurkezpena egin zuen atzo Hondarribiko Udalak.

Laugarren aldiz, Maite Gonzalez Esnal idazleak zuzenduko ditu, urriaren 7an hasita, iaz 50 lagun biltzea lortu zuten liburuaren inguruko eztabaida talde hauek.

Gaztelerazko bi taldetan eta euskarazko bakarrean banatuta, ikasturteari hasiera emateko, hemendik abendura, bost bilera egingo ditu talde bakoitzak Doris Lessing, Merce Rododera, Lydia Flem eta Arantxa Urretabizkaiaren lanak (azken hau, euskaraz) irakurri eta eztabaidatzeko.

Izen-ematea

Literatura tailer hauetarako izen-ematea larunbat honetan irekiko du Udal Liburutegiak, urriaren 1era arte.

Parte hartu nahi dutenek, 9.00etatik 14.00etara astelehenetik ostiralera, eta 10.00etatik 13.00etara larunbatean, izena eman ahalko dute Zuloaga etxean bertan, edo bestela, 943 111295 telefonora deituz edo liburutegia@hondarribia.org helbidera idatziz. >x.s.